

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2013ko iraila • 283. alea



**Pentsioen atzean
pertsonak daude**

TXALOK aurkezten du

HIL arte BIZI

zuzendaria BEGOÑA BILBAO



ANTZERKIA

Urriak 11, ostirala.
Arratsaldeko 8:30ean,
antzokian.



Sorruzeko Udala

IKER GALARTZA

SARA COZAR

JOSEBA USABIAGA

Batuko gaittuan eguna



Aritz Arizaga

Egoitz Unamuno

Kaixo Egoitz!

Zelan jua dok uda? zenbat baztar ezagutu dittuk? urru-nian edo gertuan dagan edozein txoko udan politxagua dok. Denbora gehixago dakak eta hartaz gozatzeko. Irailakin batera egunerokotasunera bueltatzian ezetarako be astirik ez daguala konturatzen haiz, denborak beste martxa bat hartu dabela.

Hau urteroko kontua dok, eta ez najabik ezer berririk esaten. Beti errepikatzen dok gupidarik barik. Zeozer berrixa jaukagu laster herrixan, ezta? Euskal Herriko euskara elkartiak bertan ba-

“TopaEguna bai dala egunerokotasuna apurtuko daben notizia edar bat”

tuko dirala laster eta herrixa ospakizunez eta ekitaldiz beteko dabela. Hau bai dala, nere ustetan, egunerokotasuna apurtzeko notizia edar bat.

Aspaldi hasi zittuan, dala 160 bat urte edo hola, beste lurralde batzutan egitten zan moduan, euskeriaren inguruko jaixak ospatzen. Ordutik hona zenbat jai egingo ziran kontatzia be zaila izan leikek. Danak balixokuak, bakoitza bere neurrixan. Euskaldun jentia batzen dok horrek jaixetan, euskeria maitte daben jendia izaten dok edo, besterik barik, euskeria erabilitta ondo pasatzia nahi daben jentia. Horrek euskalgintzari laguntza haundixa emoten jotsak. Plaentxian egittekoa danak be bere puntua ekarriko jok. Bajakixat, dana dala, jatorriz hola sortu ziran jai batzuk pixkat aldatu egin dirala.

Esaterako datorren hilan seixan Tolosan ospatuko dana. Bere funtsa mantentzen daben arren, bere helburuak beteko dittuan arren (hala espero, behintzat), arazo bihurtuta daok. Zenbat gaztek alperrik galtzen daben eguna larregi edan dabelako. Noiz laga be jakin bihar dok. Lastima.

Bertan holakorik pasauko ez dalakuan, eskerrak emotia besterik ez, Egoitz, egin dozuen lan haundixagaittik. Ilusiñua behintzat zabaldu dozue.

Eskerrik asko!

Aupa Aritz,

bai, TopaEguna jai egun edarra izango dok, bai. Ez dok izango erraldoia Kilometruak edo Korrika diran moduan, baina bai benetakua, eta hori dok garrantzitsuena. Euskararekiko zaletasuna izango dok beste gauza askoren gainetik eta azpittik ehundaka pertsona batuko gaittuan aitzakixa, eta euskal kulturaz gozatuko jauu egun guztian zihar.

Aspaldi honetan buruari buelta dezente emon jotsau euskara elkartietan. Zertarako sortu ginan, zer lortu dogun, etorkizunera begira zer egittia dagokigun... Ondorixuetako bat izan dok herriz herri euskaltzaliak batuko dittuan topagune bihurtu bihar dogula elkartiok. Alegia, Pil-pilean Soraluzeko Euskaltzaleen Topagunea bihurtu bihar dogula.

“Nahi izatia dok bidian parte hartzeko baldintza bakarra”

Pil-pileanek urte mordoxka bat jharduk herrixan euskalgintza lantzen, eta atzera begira hasitta, ezin leikek ukatu -bere gabezi guztiekin- Soraluzen azkenengo bi hamarkadetan izan dan euskalgintzako eta gizartegintzako egitasmo bizienetako bat izan dala Pil-pilean: aldizkarixa, kultur ekimenak, berbalagunak, Kukumixoxo, Galtzagorrixak... Dozenaka ekimen egosi dittuk Pil-pileanen, eta beste asko inguruan Pil-pileanen inguruan.

Baina Pil-pilean ezin leikek ulertu Soraluzen euskalzaletasunaren mugimenduak egindako bidiari begiratuta besterik: dantza taldia, mendi taldia, ikastola sortzeko mugimendua, gau eskolak...

Euskararen ametsa eraikitzeke bide horretan egoteko baldintza bakarra nahi izatia dok, eta beraz, nahi daben danak lekua eukioko jok TopaEguneko jaixan eta biharamunian eraikitzen hasiko garan herriko euskaltzalien topagune barrixan.

Iker Aldazabal
Basauri **Uzin jaunaren idatziaren harira**

Irakurri det, "Alkarrekin Soraluze Eginez" egitasmoan parte hartu dezula, ingurugiroari buruzko bileran. Ekimena txalotu duzu, baita, herritarrei parte hartzeko ematen zaien aukera ere. Guztiz ados! Ez da lehen aldia ordea, horrelako ekimenak bultzatzen direla herri mailan. 2004-2006 urte bitartean Agenda 21ko prozesua ipini zen martxan. Helburua; Udalak burutzen dituen politketan, ingurugiro erizpidea txertatzea. Prozesu parte hartzailea izan zen, herritar guztiei zuzendua eta zabaldua. Lastima, orduan ez zenuela parte hartu, seguru, interesgarria izango zela, zure ekarpena.

Bilerako gai desberdin guztietatik bat, azpimarratzen dezu, hondakinena. Ez da harrizkoa, orain gutxi ikusi degu aldizkari honetan, Soraluze Zero Zabor plataformaren kide zarela. Jakinekua da herrian 5. edukiontzia ipini dela. Elkarrizketan "aurrerapausotzat" bezala kalifikatu zenuten ekimena. Gainera familien % 60a apuntatu dela jakinda, txalotzekoa eta zoriontzekoa da Soraluzetarren jarrera. Zaborren datuei dagokionean, lasai, hortan lanean gabiltza eta laister jakingo ditugu emaitzak. Onartezina iruditzen zait, errausgailuari buruz esaten dezuna. Inun, oinarritu gabe, herritarren artean alarma soziala piztuz, horrelako adierazpenak egitea. Orain arte Gipuzkoan izan den Ingurugiro Diputatuak, Alduntzin jaunak, ezeztatu egin zuen errausgailua, toxikoa zela (DV 2012-06-10). Edota nola liteke, Europako hiriburuetan (Berlinen, Zurichen, Parisen, Vienan etb...) errausgailuak egotea, jakinik gu baino ardua handiagoa dutela ingurugiro gaietan? Amaitzeko, herritar guztiak animatzea nahiko nitzuzke gai hauetan parte hartzera, aspaldi ezan nuen bezala, ingurugiroa guztion ardua bait da.

Soraluzeko
Arrano Elkarte **Zentzugabeko epaiketa**

Datorren urriaren 17an Espainiako Audientzia Nazionalean 35/02 sumarioaren epaiketa hasiko da. Bertan, Ezker Abertzaleko 40 kide epaituko dituzte, sekula hasi behar ez zuen zentzugabeko epaiketa batean.

Sumarioaren barruan Euskal Herriko 90 elkarte eta taberna daude, tartean geurea: Soraluzeko Arrano Elkarte. Ondorioz, datozen hilabeteotan gure presindenteak deklaratzera joan beharko du, elkarteak ETA finantziatu duen akusaziopean.

Arrano Elkarte duela 25 urte sortu genuen Soraluzeko hainbat herritarrek, eta sorreratik bertatik, herritar eta herriko ekimen askoren topalekua izan da. Bertan egin dira afariak, musika emanaldiak, bertso saioak, dokumentalen proiektzioak, herriko taldeen bilerak, eztabaidak, tertuliak, hitzaldiak... Gure elkarteak atek zabalik izan ditu beti nahi eta behar izan duen guztiarendako.

Elkarte hau martxan jartzea pertsona askoren ilusio eta lanaren ondorioa izan da, eta gure poltsikoetatik atera dira lehenengo pezetatik azkenengo eurora arteko diruak. Inork ez digu ezer oparitu.

Sumario zentzugabe honen helburua aukera eta ideia politiko jakin batzuei eraso egitea da. Elkarbizitza esparruak eraiki beharrea, gatazkaren konponbiderako prozesua oztopatzen ahalegintzen dira behin eta berriro. Zurrunbilo zoro honen zenbakiak beldurtzekoak dira; 372 urteko kartzela-zigor eskaera, 700.000 euroko gastua auzipetuendako... Normala al da hau?

Ilusioz eta lanez atera dugu Arranoa aurrera, eta apaltasunez bada ere, uste dugu gure elkarteak zeozer aportatzen diola Soraluzeri, eta bide horretan jarraitzeko asmoa dugu. Hurrengo egunetan herriko eragile eta elkarteekin batuko gara, injustizia honi aurre egiteko antolatuko ditugun elkartasun ekimenen berri emateko. Guztion babesa beharko dugu egoera honetatik babesteko gaituen herri harresia eraikitzeko.



Gorka Elizburu

Independencia per cambiar-ho tot

Inbidixa sano antzeko zer edo zerretan jua nintzan Herrialde Katalanetara aurreko astian. Euskal Herritik hainbesteko ikusminez bizi dogun hori gertutik ezagutzeko asmoz. Independentista izatia moda bat da. Senyeradun kamisetak, txapelak, kirol zapatilak, poltsak, prakak, abarketak, txankletak, kuleruak, bañujantzixak... eta Barcelona FCn kamisetia bebai. Eromena. Independentzian alde borrokatzen urtiak daroizian kidiek be ez dabe guztiz sinesten begixen aurrarian ikusten dabena.

Handik bueltan pare bat hausnarketa egin nahi nittuzke. Lehenengoa: independentzia aldarrikatzera modu masibuan atera dan jendetza, mugimendu horrek ze trinkotasun ete dauka? Espainiak konsultia debekatzian, CIUK atzera egitten dabengan edo bixen artian akordio fiskala egitten dabengan, zer gertatuko independentzian aldarri horrekin?

Bigarren hausnarketia. Independentismuan gorakada honen arrazoi nabarmena da krisi ekonomikua. Baina ezin da ahaztu CIU ERCn babesez murrizketa latzak egitten dabilela une honetan *Principatian*. Pobretze eta bazterketa tasak goraka doiaz. Zoritxarrez ANC bera da ezker independentistatik eta CUPetik egiten dittuen kritika hauen aurrarian asaldatu eta Artur Masi babes osua azaltzen dotsan lehenengua. Eta goguan eduki beste gauza bat: burgesian interesen arabera izango da aurrera edo atzera egittia.

Eta bittartian País Valencià eta Illes Balearesko independentistak ikusle, aukera historiko bat begi bistan euki eta heldu ezinda.

Beraz, CUP, Arran eta beste eragile batzuk abiatu dabon kanpainiak sekulako zentzua dauka: *independentzia guztia aldatzeko*.

ZIGOR ALBERDI mendiko korrikalaria**“Nere afizioa mendian inongo presiorik barik ibiltzea da”**

2006an Zegama-Aizkorri maratoian parte hartu zuen lehenengo aldiz Zigor Alberdik (Soraluze, 1981). Ordu-tik hona mendiko hainbat lasterketetan parte hartu du.



Andorrako Printzerria zeharkatzen duen Ronda del Cims mendi lasterketa izan da korritu duen azkenetakoa. Datorren maiatzean La Palmara joateko asmoa du, 83 km-ko ibilbidea duen Transvulkanian ultramaratoian parte hartuz.

Andorrako lasterketa Europako gogorenetakoa omen da. Zelako esperientzia izan da?

Bizitzan behin bizi beharreko modukoa. 170 kilometroko ibilbidean 2.400 metro-tik gorako hamabost mendikate zeharkatu genituen. 144 korrikalarien artean hogeigarren postuan sailkatzea lortu nuen, 38:15:20ko denbora eginda.

Zelakoa izan zen helmugara heldu zinen unea?

Hunkigarria. Neska lagunarekin elkartu eta hitzez azaldu ezin daitekeen emozioa sentitu genuen biok. Lasterketan zehar muturreko egoerak bizi izan nituen; beroaren atzetik ekaitza etorri zen eta sekulako hotza gauean. Lasaitu nintzenezan pentsatu nuen; “oinguan earra in dok Zigor!”.

“Andorrako lasterketak 170 kilometro zituen eta hamabost mendi”

Ultramaratoietara katigatu zara?

Ez, ez! Nire afizioa mendia da, mendian inongo presiorik barik ibiltzea. Horrelako lasterketek fisikoa asko kolpatzen dute, eta gainera, maila onean egotera behartzen zaituzte. Neri sentsazioen arabera jardutea gustatzen zait. Gorputzari egiten diot kasu eta gorputzak “nahikoa da!” esan arte gozatuko dut mendiaz. Lehiatzen berriz, gehienera jota ere bi urte pasatuko ditut.

“Gehienera jota ere bi urte gehiago pasatuko ditut lasterketetan”

Hurrengo helburua zein?

Hiru ditut buruan. Martxoan Tarragonako Ultratrail Fonts lasterketan hartuko dut parte, maiatzean La Palman egingo den Transvulkanian ultratrailean eta abuztuan Mont Blanc-era joateko asmoa daukat.

Zure poltsikotik ordaintzen duzu dena?

Beharko! Baina egia esan nahiago dut horrela. Babesleen asuntoa konplikatu da. Lanean dihardut eta bidaia luzeak egitea tokatzen zaidanean oporrak hartzen di-

tut eta astebeterako joaten gara, lurraldea ezagutu eta deskantsatzera.

Zer esaten dizute ingurukoek?

Momentuz inorkezu nau zorrotzat hartzen. Neskalaguna da nere abentura gehien testigu, eta etxetik, gurasoengandik datorkit neri mendizaleatasuna, eurekin ikasituen mendian ibiltzen. Koadrilakoek ere asko animatzen naute.

Gomendiorik hasi berriendako?

Eguraldiari eta baldintzei kasu egiteko. Gogoan izan dezatela mendia beti hor egongo dela. Iruditzen zait azken urteotako moda bihurtu dela diru asko ordainduta mendi altuak igotzea, baina horiek ez dira mendizaleak. Mendizaleatasuna inguruko mendietan pizten da, umetatik joanda.

“Neuk ordaintzen dut dena. Babesleen asuntoa oso konplikatu da”

aras

DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03 Industrialdea 20 - 21
F. 943 75 22 95 50 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

TALLER MEKANIKOA

- Mekanizatutako piezak
- Erremintak
- etab.

Tel. 943 75 21 42 • Fax 943 75 24 12
Mendiola industrialdea 14- 4. Nabea; 161 P.K.
marian@albisua.e.telefonica.net
20590 SORALUZE

Gerrako dokumentalaren aurkezpena domekan

Isiltasuna hausten. Soroluzetarren gerrako testigantzak izeneko dokumentala aurkeztuko du Soraluze 1936 lan taldeak domekan. Dokumentala eguerdiko 12:00etan antzokian egingo den ekital-



© sabino arana fundazioa

Itxarkundia batalioian asko izan ziren soroluzetarrak.

dian aurkeztuko dute. Bertan, 1993tik 2013ra bitartean jasotako berrogeiren bat herritarren testigantzak jaso dituzte. Besteak beste, "Errepublikara garaian herria nolakoa zen, 1936ko irailaren 22ko erreketen sarrera, herritarrek Bizkai aldera eta herbestera egindako ihesa, Durango eta Gernikako bonbardaketak, herriko atxilotetak, fusilamenduak eta jazarpenak" kontatzen dituzte.

Azaroan salgai

Domekan proiektatuko den dokumentala azaroan salgai jarriko dutela jakinarazi du Soraluze 1936 lan taldeak. Horrekin batera, etorkizunean lanean jarraitzeko asmoa agertu dute.

Dispertsioa salatu dute Asier eta Iñakiren omenaldian

Irailaren 8an hamabi urte bete ziren Asier Heriz eta Iñaki Saez Lurdes Txurruka preso soroluzetarra bisitatze-za zihoazela auto istripuz hil zirela. Besteak beste, sakabanaketa politikak 16 heriotza eta ehunka zauritu eragin dituela salatu zuten Karakaten burututako oroimen ekitaldian. Estatuak mugituazikoz dituen "giza uholdea" sortzeko deialdia egin zioten gizaritari.



Dolmenen ibilbidera bisita gidatua domekan

Debegesak eta Debanatura Elkarteak, Karakate-Irukurutza mendilerroa ezagutzeko bisita gidatua antolatuko dute domekarako. Goizeko 10:00etan Karakateko aparkalekutik abiatu eta hiru orduko ibilbidean zehar, euskal artzainen eta nomaden aztarnak jarraituko dituzte. Tartean, geldialdixoa ere egingo dute eskualdeko gazta, ogia eta sagardoa dastatzeko. Izen ematea aurrez egin behar da, 943 191 172 edo 695 783 656 telefonoetara deituta. Bisitaren prezioa 12 eurotakoa da, umeak debalde.



Pentsioak eta botoak batera doaz



Espainiako Gobernuak iragarri duen "pentsio-sistemaren erreformaren aurka" eta "ordainsari duinak" jasotzearen alde elkarretaratzera egin zuten herriko 100 jubilatu inguruk. Zehazki, aurretik zuten soldataren %80a kobratzea exijitzen dute. Hortaz, "erretiratuaren ordainak ukitzen dituen alderdiak ez duela jubilatuaren botorik jasoko" ohartarazi dute.



Berrordainketa salatzen sinadura bilketa

Botiken berrordainketa salatzen ahalik eta sinadura gehien batu nahi ditu Duintasuna Elkartek. LABko nagusiek aurreko astean ekin zioten sinadurak batzeari eta asmoa da hilabete batzuen buruan EAEn jasotako sinadura guztiak Eusko Jaurlaritzan aurkeztea. Besteak beste, "pentsiodun eta 65 urtetik gorako enpresak dohainik izatea" exijitu eta "zahartzaro duina" aldarrikatu nahi dute. Herriko jubilatuen eta pensiodunen "farmazietan erositako botika guztien tiketa eskatu, eskuratu eta etxean gordetzeko" eskatu nahi diete. Egitasmo honen alde Itxaropena Elkartearen edota herriko tabernetan sinatu daitezke.



Presoen aldeko elkarretaratzea deitu dute kirolariek

Irailaren 27an, herriko kirolariek eta kirol arloan dabiltzan herritarrek deituta, Preso Politikoen eskubideen aldeko hileko azken barixakuko elkarretaratzea egingo du Herrirak. "Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal Presoak Euskal Herrira" lemapean, Plaza Zaharrean elkartuko dira, iluntzeko 20:00etan.



Baserribideen inbentarioa ikusteko epea zabalik

Uda aurretik hasitako prozesuari jarraituz, udalak jakinarazi du, irailaren 16tik aurrera baserribideen inbentarioa ikusteko aukera izango dela. Horretarako hitzordua lotu behar da, udaletxeko harrera gunera joanda, 943753043 telefonora deituta edo udala@soraluze.net helbidera idatzita. Bertan esango diote zein egun eta ordutan joan ahalko duen aipatutako dokumentua ikustera.



Baserritarrek baserribideen mapa begiratzen.

Gaztetxokoak asteburu pasa joango dira urrian

Urriaren 4an ekingo dio berriz ere Gaztetxokoak bere ibilbideari eta hezitzaileek adierazi dutenez "asmo berritzailaz jantzi nahi dute ikasturtea". Zapatu eta domeketan, 17:00etatik 20:00ra bitartean egongo da zabalik eta auzolanaren printzipioari jarraiki, hezitzaileek eta gazteek, elkarrekin dihardute pro-

gramazioa osatzen. Urriaren 12 eta 13a bitartean "harremanak sendotu eta urteko plangintza osatzeko" asteburupasa egingo dute herriko mendietan zehar. Horrez gain, urriaren 18rako ate irekiak prestatu dituzte guraso, tutore eta herritarrei gunea, proiektua eta programazioa ezagutzera emateko.

Arrano Elkartearen babesteko elkartasun ekimena

Arranoko zuzendaritzak eta bazkideek elkarrekin jarduna babesteko elkartasun ekimenak antolatuko dituzte datozen hilabeteetan. Arrazoia, Auzitegi Nazionalak Euskal Herriko 90 elkarteren aurka abiatuko duen 35/02 sumarioaren epaiketa. Soraluzeko Arrano Elkartearen inputututa dago ETA finantziatzearen akusaziopean. Elkartetik adierazi dute, "bakebidean hasitako bidea oztopatzea beste asmorik ez duela zentzugabeko epaiketa honek". Datozen egunetan herriko elkarte eta eragileekin berba egun eta

elkartasun ekimenak antolatuko dituztela jakinarazi dute.



Arrano Elkartearen hainbat bazkide elkartu ziren ekimenari euren babesa erakusteko.

Javier Alberdi



EUSKO LABEL

Baimendutako
harategia

Euskal Okela

Carniceria
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

Elizpe

Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

OHARREKIN BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIA
KONPROBESORIK GABENO AURREKONTUA

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 behe, Soraluze

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

aek

Euskara praktikoa

Zauden lekuan
zaudela, bertan
gaude:
100 euskaltegitik
gorako sarea.

Zure neurriko
eskaintza:
modulazio
eta ordutegi
egokienak.

Zuk ere ikasi
eta biziko duzu
euskara,
gurekin ikasi dute
50.000 herritarrek
bezala.

Lehenengo egunetik
hitz egingo duzu,
erabileran
oinarritutako
metodologiari esker.

Guraso, langabetu, dendari, ikasle edo jubilatua bazara: **MATRIKULA DEBALDE**
Langileendako %50eko laguntza

Izena emateko azken eguna: Irailak 27

Informazio gehiago: 943 741 434 edo soraluze@aek.org



Estokak



Mintza praktikoa



Berrelegiak



On line



Autokalkuntza



Normalizazio planak



Titulu homologatuak

aek

Ikasle Baxena

eman izena

www.aek.org
902 362 294



غازتلو طابارنا

GAZTELUPE

taberna

tel: 943 75 20 81



Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20 000 434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



JUAN MARI

ARRINDEGIA

943 75 24 40

MERKATU PLAZA

ESKERAK ASKO PLAENTZATARRAKI
GUCEN IZANDAKO KONFIANTZAGATIRI!

laibi

ELECTRICIDAD

Mendiola industrialdea, 13
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)
Tel. 943 75 12 69 • 616 168 227
Fax. 943 75 23 41
gabilondo@laibi.net • www.laibi.com



M.A.H., S.L.
Tailerrak



Dekoletajeko
piezen ekoizpena

Tel: 943 75 30 22; Fax: 943 75 30 88
Mendiola industrialdea 14; 3. eraikina
23 P.K. 20590 Soraluze



Mendata

Giro euskalduna

Etxean egindako pizzak eta txapiroak



San Martzial eta Errekaldeko jaiak



iturria: Igor Aldazabal, Elena Pérez eta Carlos de Cos

Eskerrik asko guztioi, benetan.

2013ko Mesedetako Jai Batzordearen izenean mezu hau helarazi nahi diet soraluzetarrei: eskerrik asko guztioi, benetan. Orain zazpi urte egun arrunt batez kolkotik jai hau atera zutenei; erreleboa hartzen eta hobetzen jakin dutenei; urtero hain gogo onez eta hain armonia onean jaiak gozatzera animatzen direnei (barkatzen diegu etorri ez direnei baina ez dadila berriz gertatu, eh!); udalari bere laguntza handiagatik; babesleei, hondar alez hondar ale altxatzen delako mendia, eta zela ez?, eskerrik asko auzotarrei hain parte hartzaile eta tolerantetarako izatearren.

Aurten eguraldiak zapatu gaua zapuztu nahi izan digu, hala ere, izan ziren talde ausart batzuk euriaren azpian dantzari (kantuar dion moduan) egin zutenak DJ Sergiorekin, gauerdiko su artifizial xume baina politekin amets eginez eta familia arteko eta atzoko eta gaurko lagunaren arteko barre algararen artean.

Gainerako ekimenetan jende askok parte hartu zuen. Umeek eta nagusiek gogotik gozatu zuten ekintza eta jolasekin, eta Gorriti eta bere animaliekin, beti bezala.

Hauek izan dira aurtengo lehiaketak eta irabazleak:

- Musean: Jaime y Manolo.
- Tutean: Zarobe y Rubén.
- Tokan: Pablo.
- Patata tortila: Itziar.

Batzordeko bolondresendako hau jai bat baino gehiago da, "nahi izatea ahal izatea" denaren erakusgarri da: auzoko adiskide batzuen artean, bakoitza bere aitaren eta amaren semea izanik, elkar hartu eta helburu bakarrari heltzen diegu... eureka!

Munduko ilusio guztiarekin prestatu dugu jaiak zu diberti zaitezten, eta lortu dugula ematen duenez, asko okertu beharko luke kontuak dugun ilusioa galtzeko. Lan handia hartu dugu baina handiagoa satisfakzioa, eta horregatik ahaleginduko gara, gutxienez, maila mantentzen.

Datorren urtean ere zure zain egongo gara, eskolarako itzulera arintze aldera.

TOPA EGUNA

Euskaltzasunagatik topa!

Euskal Herriko euskaltzale guztiak daude deituta irailaren 28an herrian egingo den Topa Eguna. Era guztietako kultur emanaldiak izango dira euskaltzasunaren jai egunean, baita aldarrikapenerako tartea ere.

Hil honen azkenengo zapatuan euskaltzaleen bilgune bihurtuko da Soraluze. Antolatzaileen esanetan, bi helburu nagusi ditu TopaEgunak; "batetik, herriz herri euskara elkarteetan antolatuta dauden euskaltzaleak batzea, eta bestetik, euskaltzaleen mugimendua jendartearen aurrean agertzea, daukan balorea aitortzeko. Euskaltzaleen mugimendua bizirik dagoela transmititu nahi dugu, eta zabalik dagoela euskaltzaleen edozeinendako".

Auzolana oinarri

Antolatzaileen esanetan "auzolana" izango da egunaren beste ezaugarri nagusienetako bat. Pil-pileanekin batera Deba bailarako euskara elkarteek dihardute antolaketa lanetan eta

herriko hainbat eragilek ere bai; herriko elkarte gastronomikoen bazkariak eskeiniko dituzte, kukumixoko hezitzaileek umeendako ekimenak antolatuko dituzte bailarako aisialdi taldeekin, musika eskolak, Udalak, eskolak, institutuko ikasleek, Galtzagorriek, dantza taldeak, bertso eskolak, Gaztetxeak... bakoitzak bere hondar aletxoak ipiniko du egun honetan. Aipatzekoa da, Xero Xiette taldeak egin duela Topa Egunerako kantua, **Emaiozu balorea** izena duena. Etorriko den jende kopuruari dagokionez antolakuntzatik ez dute kopuru zehatzik eman nahi izan; "ekimen berria da eta ez dugu zerbaiten neurtu nahi. Bailarako elkarteek elkarlanean dihardugu hilabetetan eta datorrenak gozatzea nahi dugu, besterik ez".

► JAKINGARRIAK

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Euskararen lurralde osoan barreiatuta dauden 80 euskara elkarte baino gehiago biltzen dituen gizarte mugimendua da Euskaltzaleen Topagunea. Euskara elkarteak herri mailan euskaltzaleak antolatu eta euskararen berreskurapenaren aldeko jarduna bideratzeko herritarrek sortutako elkarteak dira. Gaur egun, mugimenduak herriz herriko elkarteetan antolatuta dauden 20.000 euskaltzale baino gehiago biltzen ditu bere baitan.



Pil-pileaneko ordezkariak, bailarako eta Topaguneko ordezkariekin batera.

DEBA BAILARA

Deba bailara aintzindaria izan zen euskara elkarten mugimenduaren sorreran. Lehenengo euskara elkarte Arrasaten sortu zen 80. hamarkadan eta bertatik zabaldu zen gainerako herrietara. Gaur egun, Deba bailaran 9 euskara elkarte daude:

Debabarrenekoak:

Euskal Birusa (Ermua), Eta Kitto (Eibar), Mallabi (Horraittio), Elgoibarko Izarra (Elgoibar), Zuhatza (Deba), Karkenka (Muttriku), Pil-pilean (Soraluze).

Debagoienekoak:

Jardun (Bergara), Goibeko (Elgeta), AED (Arrasate), Txatxilipurdi (Arrasate), EKIN emakumeak (Arrasate), Loramendi (Aretxabaleta), Goiena (Debagoiena), Txirritola (Aramaio).

EGITARUA**11:00etan** Harrera**12:00etan** Jon Sarasuaren liburuaren aurkezpena Herriko antzokian**Goizean zehar:**

- Umeen hiria
- Berba probak
- Andrabanda feminista
- Kantu Jira
- Puzgarriak Plaza Zaharrean

14,30ean Herri bazkaria**Bazkalostean:**

- Irrien Lagunak
- Kultur Gindak
- Hezitzaileen arteko jolasak
- Kalejira

Zubi nagusian:**18:00etan** Ekitaldi nagusia Zubi Nagusian**19:00etan** Erromeria Xero Xietterekin**22:30etan** Kokein + Gosereren kontzertuak**AIPAGARRIENAK****Umeen hiria**

11:30ean hasita herriko hainbat txokotara kalejira joango dira umeak, eta aisialdi taldeek antolatutako ekimenetan parte hartzeko aukera izango dute.

Sarasuaren liburuaren aurkezpena

Jon Sarasuak idatzi duen azken liburua aurkeztuko du: "Hiztunpolisia. Euskaltasunaren norabideaz zenbait apunte".

Goizeko ekimenak

Umeak kalez kale dabiltzan bitartean helduek ere gozatzeko aukera izango dute; berbaprobak, andrabanda, euskararen gunea, talo postua eta kantujira.

Bazkaritarako erreserba

Herriko elkarte gastronomikoetan edo Frontoian (umeen gunean) bazkaldu ahalko da. Izen emate eta ordainketarako Iratxo Goxodendara jo behar da, irailaren 23a baino lehen. Prezioak: arruntak 12 euro, langabetu eta ikasleak 10 euro eta umeak 6 euro.

Kultur gindak

Bazkalostean kultur emanaldi txiki eskainiko da elkarte gastronomiko bakoitzean: Bertso-lariak, musika, antzerkia edo magia. Umeendako frontoian (umeen gunean), 4:30ean Irrien lagunekin kanta eta dantza.

Ekitaldi nagusia

Elkarte gastronomikoetan batzen den jendea kalejira batuko da Zubi Nagusian egingo den ekitaldi nagusira. Ibaian egingo den ekimen berezi batekin hasiko da.

Kontzertuak

Xero Xieteren erromeriaren ostean Kokein eta Gose taldeen kontzertua izango da.



Iturriak:
Aitziber Mayo,
Irrien Lagunak
www.kokein.com
www.gose.info

ELKARRIZKETA**Zela definituko zenukete TopaEguna?**

Euskararen lurraldeko euskaltzale guztien eguna izango da, eta baita herriko euskaltzaleona ere. Bestelako ezberdintasunen gaitetik, euskararekiko eta euskal kulturarekiko zaletasunak batzen gaitu. Egun horretan euskararen ametsa eraikitzen jarraitzeko ilusioa transmitituko diogu elkarri.

Zergatik Soraluzen?

Herria baino gehiago bailara da aukeratu dena. Deba bailarak (Debagoiak eta Debabarreak) beti izan du garrantzia handia euskara elkarte mugimenduan. Batetik, lehen elkar-teak bailara honetan sortu zirelako, eta gerora ere erreferentzia izan direlako hainbat arloren garapenean; toki hedabideak, aisialdia...

Emaziozu balorea da aukeratutako lema.

Euskara elkarteetatik urte osoan zehar egingo dugun lanari duen balorea ematea da



Arianne Unamuno
(Lehendakaria) eta
Arrate Gisasola
(koordinatzailea)

“Euskararen ametsa eraikitzen jarraitzeko ilusioa transmitituko diogu elkarri”

“Herriar guztiei dei egingo diegu parte hartzera”

helburu nagusienetako bat. Konturatu behar dugu zeregin zentrala dugula gure hiztun komunitatea antolatu eta sendotzerako orduan.

Herritarrendako mezuren bat?

Pil-pileanek urte asko daramatza herrian euskaltzalea bultzatzen eta egun garrantzitsua izango da elkarte osatzen dugun euskaltzale guztiondako. Herriar guztiei dei egingo diegu TopaEgunean parte hartzera. Jai egun ederra izango da.

Ongizatea

Behar asko identifikatu dira, batez ere adineko pertsonen, etorkinei eta emakumeen dagokionez.

Ekainak 5ean eta 19an egin ziren foroetan landu zen ongizatearen gaia. Aurretik diagnosi bat egin zen herrian arlo honetan diharduten hainbat eragilerekin batera: Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Itxaropena, Mesedetako egoitza, Caritas, Elkartzen, Misisio Taldea...

Elkarrizketa horietan identifikatutako lan arlo nagusiak ondorengoak izan ziren: au-

zolan espiritua eta interkulturalitatea, nagusiak, menpekotasuna eta etxebizitza. Herritarren foroan gehitu zen emakumeenganako indarkeria.

Bileretan behin eta berriz aipatu zen kontzeptuetako bat **auzolana** izan zen. Krisi garaian herritarren arteko elkartasuna eta elkarlana inoiz baino beharrezkoagoa dela aipatu zen.



Mbaye senegaldarrekiko elkartasun ekimena irudikatu zuen argazkia.

iturria: J.M. Berrueta

► DIAGNOSTIKOA

ADINEKOEN DAKO ZERBITZUAK

Gaur egun **862 pertsona daude 65 urte edo gehiago dituztenak**, tasa altua da (%21). Badira hainbat zerbitzu gizatalde hau artatzeko, hala nola zaharren egoitza eta etxez etxeko laguntza, baina ez dago eguneko zentrorik eta aspalditik identifikatuta dagoen behar bat da hori.

ZAINZAILIEN DAKO HARRETA

Adineko askok menpekotasun maila altua daukate eta laguntza behar dute eguneroko bizimodua aurrera eraman ahal izateko. Zaintzen dituzten pertsonenganako harreta berezia jarri beharra dago.

ETORKIN-TASA ALTUA

Soraluzen % **9,11koa da etorkin-tasa**, Gipuzkoan % 6,2koa, eta EAEen % 6,6koa. 2012an atzeritik 363 pertsona etorri ziren herrira. Orohar Soraluze herri irekia eta integratzailea denaren pertzepzioa da nagusi baina etorkin kopuru altuak mesfidantza sortzen du hainbat herritarren artean. Interkulturalitatea eta etorkinekiko harremanak lantzea beharrezkoa da.

ETXEBIZITZA ZAHAR ASKO

Soraluzeko **etxebizitza parkea oso zaharkitua dago**, askok ez dute igogailurik, beste asko degradazio zantzuarekin daude. Eusko Jaurlaritzak interbentzio maila oso altua zuen zonalde gisa aipatzen zuen Ezozibidea-Gabolats-Arraikua-Loralde zonaldea. Etxebizitzak eraberritzen, etxebizitza hutsak alokairura bideratzen eta etxegabetzeen arazoari erantzuten lan handia dago.

Lehenetsitako Proiektuak

► AUZOLANA BULTZATU

Azalpena: herritarren boluntariotza eta gizarte eragileen arteko elkarlana bultzatu.

Ekintza posibelak: esperientzia taldeak, denboraren bankua, sentsibilizazio kanpainak, sare sozialak...

► ZAHARTZARO AKTIBOA

Azalpena: nagusien bizi kalitatea hobetu partaidetza, segurtasuna, harremana eta osasun aukerak sustatuz. Interes taldeak eta komunitateak sortu.

Ekintza posibelak: belaunaldien arteko harreman bideak, on line sareak, memoria eta denbora bankuak, kultur ekimenak belaunaldi gazteagoekin...

► MENPEKOTASUNA

Azalpena: menpekotasun egoeretan dagoen jendeari duintasunez bizitzeko minimoak bermatu, gizarte bazterketa saihesteko.

Ekintza posibelak: laguntzaileen denbora bankua, zaintzaile komunitateak, jaien bitartez integrazioa lantzea, herrigunetik urruti dauden guneetatik jeisteko furgoneta...

► INTERKULTURALITATEA

Azalpena: interkulturalitate kontzeptua landu herrian etorkinen integrazioa bultzatzeko. Arlo sozioekonomikoan laguntza eskaini.

Ekintza posibelak: harrera planak, kultur elkartrukea, euskaraz eta gaztelera ikasteko aukerak bermatzea, herritarren sentsibilizazioa lantzea, esperientzien elkartrukea, etorkinendako mintzalaguna...

► SARE SOZIALAK

Azalpena: baztertuta dauden edo izateko arriskuan dauden pertsonen sare sozialetan barneratzeko aukera eman.

Ekintza posibelak: belaunaldi desberdinetako lan taldeak sortu ekintza integratzaileak garatzeko, antzerki obra bat egin elkarrekin, "lagun arteko" otorduak...

► ETXEBIZITZA

Azalpena: etxebizitza premiak modu integral batean landu, etxebizitza horiek kalitatezkoak eta prezio duina izan dezaten lan eginez.

Ekintza posibelak: etxebizitza hutsak alokairura ateratzeko dinamika etxebabeekin, etxebizitzak berritzeko plana, udalak desjarabtzak egiten dituzten banketxeekin harremanak etetea...

► GENERO INDARKERIA

Azalpena: herrian emakumearekiko indarkeriaren arloan dagoen errealitatea azaleratzeko eta indarkeria jasan duten emakumeak laguntzeko ekimenak.

Ekintza posibelak: sentsibilizazio kanpainak, herri-foroa, hitzaldiak, autodefentsa ikastaroak, berdintasun eskola, ahalduntze eskola, prebentzioa gazteei begira...

► BAZTERKETA SOZIALA

Azalpena: laguntza sozialenganako eta hauek jasotzen dituzten kolektiboenganako mesfidantza eta aurreritziak gainditzeko errealitatea ezagutarazi behar da.

Ekintza posibelak: laguntzak jasotzeko baldintzen berri gogoratu, hitzaldiak, tailerrak, bideo emanaldiak antolatuta gaiaren inguruan informatzeko...

Hurrengo foroak

Aldaketa batzuk izan dira hasieran aurreikusitako datetan. Honako egunetan egingo dira hurrengo foroak:

Sozioekonomia Urriak 2

Hezkuntza Urriak 16 eta 30

Regina Maiztegi



Herritarron arteko elkartasuna

Alkarrekin Soraluze Eginez ekimean parte hartu duten herritarrak zoriondu nahiko nituzke. Giro aparta, sensibilitate ezberdinetako herritarrak, Soraluze aurrera ateratzeko aportazio ugari, Soraluze maite dugunaren seinale. Argi dago herritarron partehartzea bultzatu behar dela, arlo guztietan.

Ongizate arloan landutakoa interesgarria iruditu zitzaidan, eta finkatu ziren lehentasunak bermatzea ezinbestekoa. Hala ere asko daukagu aldatzeko, gure jarreretatik hasita. Instituzioek herritarrok bizimodu duin bat izateko behar ditugun minimoak bermatu behar dizkigute, noski, baina herritarron arteko elkartasunaren bidez ere gauza asko aldatu daitezke.

Indibidualismoarekin apurto beharra daukagu, garai gogorak datoz oraindik. Besteekiko ditugun aurreiritziak apurto beharra daukagu: gazteak ez dira alferrak, kontua da ez dietela lan duinik bermatzen; langileak ez dira enpresarioen etsaiak, alderantziz baik (salbuespen gutxiarekin); etorkinak ez dira gure zergen kontura bizi, beste batzuk ondo arduratu dira gure zergeetatik lapurtzeaz; jubilatua ez dira trapa zaharrak, besteok zaindu, hezitu eta maitatu gaituztenak dira; emakumeak ez gara gutxiago baina aspektu askotan gutxiesten gaituzte, ...

Hala ere herritarron borondate ona ez da nahikoa izango Euskal Herrian hedatzen ari den prekaritatearekin bukatzeko, horretarako ezinbestekoa da instituzioen politikak sakon aldatzea. Aberastasun asko dago, baina gutxi batzuen eskuetan. Aberastasunaren banaketatik hasi beharra dago, aberastasuna ondo banatuz, "fraude" fiskala geldiaraziz, fiskalitate justuagoa ezarritz... Instituzio ezberdineei hori exijitzeko antolatuta beharko dugu herritarrok. Laister izango delakoan.

Zazpigarren Marrazkilo Tourra egingo da bihar herrian. Mendizaletasuna bultzatzea eta herriko mendibideak ezagutaraztea da mendi taldeak antolatutako ekimenaren helburua. Mendizaletasunaz galdetu diegu herritarrei.

Herriko zein mendi duzu gustokoen?



Ixone Iñarra

Karakatetik Irukurutzetarako bidea oso ederra da, dauden bistengatik. Lagunak noizbehinka joaten gara, Atxolineraino edo. Marrazkilo Tourreko ibilbidea luzezia da neretzat.



Antonio Fulgencio

Urkia Zelai dela esango nuke. Deskar-gara autobusean joan eta bazkaltzera Urkia Zelaira joan izan gara. Lehenago dezente ibiltzen ginen hemen inguruko mendietan baina orain lagata rago.



Juan Fernandez

Karate Irukurutzetako ibilbidea oso polita da. Lehenago kuadrilakoekin sarri joaten ginen mendira baina aspaldian gutxi. Mendira joatea gauza ederra da, lagunarte ona sortzen da.



Ana Rosa Sebal

Arzabalaga aldera joaten gara sarri pasioan baina mendi gainera autoan joan eta handik Atxolinerara joatea ederra da. Lehenago mendi taldeak antolatutako irteeretan joaten ginen, eta orain domingero planean gehiago.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behean Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



SOMABE

- Makina bereziak
- Lerro automatikoak
- Estankotasunaren kontrola



943 75 18 91 • Mendiola industrialdea 14; Soraluze

TXURRUKA
JATETXEA



www.txurruka.com
943 75 15 81

Etxabe Harategia



Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**



ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Emaitzak

PELOTA

Retegi BI – Laskurain	12
Aritz Lasa – Barriola	22
Andreu – Irueta	6
Artola – Telletxea	22

Agenda

PELOTA

Gaur, 19:30ean Aranen
Larreategi – Kortaberria
Eibarko bikotea

Gaur, 19:30ean Aranen
Santamaria - Aurrera

Zapatua 21, 16:00etan Azpeitian
Larrañaga - Uzkudun
Andreu - Aldape

Martitzena 24, 19:15ean Adarragan
Olaizola I – Ladis Galarza
Gonzalez - Laskurain

FUTBOLA

Zapatua 21, 18:00etan Azpeitian
Ikasberri – Sora (Erreg. Pref.)

Zapatua 21, 18:00etan Aretxabaletan
Arizmendi K.E. – Sora (Erreg.)

Domeka 22, 10:00etan Ezozin
Sora (Jub.) – Burumendi

Zapatua 21, 11:30ean Mutrikun
Bukumendi – Sora (Kad. Mut.)

PALA

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa
Zapatua 21, 10:30ean Hernanin
Hernani – Soraluze

Domeka 29, Zarautzen
Zarautz – Soraluze

Urriak 6, Soraluzeko Aranen
Soraluze – Orio

MENDIA

VII. Marraskilo Tour bihar

6:00etan Plaza Barritik abiatu eta Sagar Erreka, Topinburu, Gallastegitorre, Krabelinaiz, Txurruken, Atxedon Txaboleta eta Karakatetik pasatuta Ezozin bidera jeitsi eta Plaza Barrixan amaituko da ibilbidea. 15:00etarako bazkaria zehazki dute Frontoian. Irteeran bertan ere izango da izena emateko aukera, 20 euro ordainduta.

Mikel Juaristi azkoitiarra preferenteen entrenatzaile

Iturria: Cenzual

Aurtengo denboraldian lehiatuko diren taldeak aurkeztu ditu Soraluze FT.-k. Hamar talde izango dira: Erregional Preferentea, Erregionala, jubenilak, kade-teak (mutilak eta neskak), infantilak, 1 eta 2. mailako alebinak eta 1 eta 2. mailako benjaminak. Jokalari faltagatik, aurten ezin izan dute nesken infantil talderik sortu. Berritasunik aipagarrienetakoa, Mikel Juaristiren fitxaketa da. Azkoitiarrak gidatuko du preferente mailako taldea bihar bertan Ikasberriren zelaian hasiko duten ligan.

Diru kontuak

Uztaileen aurkeztu zuen Sorako zuzendaritzak 2011-2012. urteko balantze ekonomikoa. Besteak beste, "dirulaguntzak nabarmen jaitsi direla" eta klubak "bazkideen ekarpenei esker egiten duela aurrera" nabarmendu



Preferenteko jokalaria eta entrenatzailea.

zuten. Klubak iaz lortutako emaitzak goripatu zituzten eta beste urtebetez Ezoziko taberna Txaro Matiasen eta Katia Gustinori esleitzea onartu zuten.

Muga eta Ariznabarreta Federatutako Pala Txapelketan

Ainara Mugak eta Amaia Ariznabarretak Asteburuan ekingo diote Gipuzkoako Federatutako Emakumeen Pala Txapelketa jokatzeari. Aurten estreinakoz arituko dira eta Nagusien mailan lehiatuko dira, beste

bi bikoteren kontra. Lehen fasean hiru norgehiagoka jokatuko dituzte: lehenengoa bihar, 10:30ean Hernanin; 28an Zarautzen eta urriaren 6an Soraluzen, Oriko bikotearen kontra.

Mendi taldeak babajana antolatu du Bazkide Egunerako

Azken urteotako ohiturari jarraituta, Amendi taldeak udako irteeren egutegia agurtzeko Bazkide Eguna antolatu urriaren 27rako, San Andresen. Goizeko 9:00etan Estaziño kaletik abiatuko eta Txurrukatik buelta joango dira San Andresera.

Bertan, azken hilabeteotan zortzi mendi bete dituzten umeei opariak banatuko dizkiete eta babajan eder batekin borobilduko dute eguna. Bazkarirako izen-ematea urriaren 20a baino lehen egin behar da, Irtxo goxodendan.



ESTETIKA SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Hil arte bizi eta Hitzak udazkeneko antzerki zikloan

Euskarazko bi antzezlan programatu Editu udalak udazkeneko antzerki ziklorako. Urriaren 11n *Hil arte bizi* antzezlan taularatuko du Txalo konpainiak eta



Hitzak antzezlanaren eszena bat.

azaroaren 22an Hika konpainiaren *Hitzak* antzezlan ikusi ahalko da. Bi emanaldiak arratsaldeko 20:30ean hasiko dira. Sarrerak kiroldegian bertan jarriko dira salgai, irailaren 30etik aurrera, 5 euroko prezioan.

Umeendako antzerki tailerra

Joan zen urtean bezala, lehen hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleei zuzendutako antzerki eta gorputz-adierazpen tailerra antolatu du udalak. "Gorputza erabiliz eta jolasa oinarri hartuta, umeen irudimena eta sormena landuko dute" *Zurrunmuru* antzerki-taldearekin. Herriko antzokian eskeiniko dira saioak urritik ekainera bitartean. Izenematea ikastetxean egin behar da.

Kontragiko argazkilarien lanak ikusgai urriaren azkenera arte



Iturria: Jokin Ruiz Mateos

Kontrargi Argazki Kolektiboko kideek Kaurtengo urtean zehar atera dituzten argazkiak jarriko dituzte ikusgai urriaren 15ean zabalduko duten erakusketan. Zortzi argazkilariren lanak izango dira ikusgai: Carlos de Cos, Mikel Valero, Ekaitz Uzin, Fernando Oregi, Isaac Zamakola, Julio Mendikute, Jokin Ruiz Mateos eta Alberto Arizaga. Besteak beste, naturari, kaleko giroari edota paisaiei ateratako 35 argazkirekin osatuko dute urriaren 31a bitartean zabalik izango den erakusketa. Bisita ordutegia: astegunetan 19:00etatik 20:30era eta zapatuetan 12:00etatik 13:30era.

Agenda

Irailak 25, eguaztena

MUTIL ETA GIZONAK BATZEKO DEIALDIA

19:00etan, afarimerienda Gaztetxean

Ant: Herriko mutil eta gizonak

Irailaren 28a bitartean

ERAKUSKETA

Alberto Ramirezen lanak, Kiroldegiko erakusketa aretoan

Ant: Kultura Batzordea

Irailak 28, zapatua

TOPA EGUNA

Egun osoan zehar

Ant: Deba bailarako euskara elkarteak eta Topagunea

Urriak 2, martitzena

HITZALDIA

"Oinez eta lau hankan, ikasi edo erakutsi?"

Hizlaria: Nerea Mendizabal

17:30ean, Kiroldegiko erakusketa gelan

Ant: Soraluzeko Haur Eskola

Urriak 9, eguaztena

HARAGI GISATU TXAPELKETA

10:00etatik aurrera, Itxaropenan.

Ondoren bazkaria jubilatuetan

Ant: Itxaropena jubilatuen elkarteak

Urriak 11, barixakua

ANTZERKIA

Hil arte bizi

20:30ean, Zinean

Sarrera: 5 euro

Ant: Kultura Batzordea

Fandango eta arin-arin ikastaroa

Helduendako fandango eta arin-arin ikastaroa antolatu du Urrats Dantza Taldeak. Eskolak barixakuetan eskainiko dira iluntzeko 19:30ean Herri Eskolako aretoan. Lehenengo eskola urriaren 4an izango da. Izen-ematea entsaioetan bertan egin ahal izango da. Urratseko gaztetxoek berriz, Oñatiko Umeen Euskal Jaian parte hartuz hasi dute ikasturtea. Hogeita lau dantzari joan ziren, herriko txistulariek lagunduta eta giro onean pasatu zuten eguna.



Disenua eta Sormena

Poligono Amillaga, n° 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Zorion agurrak



Mikel Ramos
Abuztuan 13an 10 urte!
Zorionak mutil haundi eta muxu pila etxeko danon partetik!



Josu Leturiondo Garcia
Irailan 9xan, 6 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partez!



Oinatz Beretxinaga Heriz
Irailan 4an 2 urte!
Zorionak potxolo!
Patxo pila pila, patata tortila.



Irene Agirre
Irailan 6xan 4 urte! Zorionak gure etxeko printzesaxoari!
Etxekook asko maitte zaittugu!



Maren Etxabe Gomez
Abuztuan 21ian 6 urte!
Zorionak eta patxo pila bat etxeko guztien partez!



Eñaut Cerrejon Atxa
Irailan 11n 5 urte!
Zorionak mutilhaundi eta muxu haundi bat danon partez!



Francisca eta Juan
Abuztuan 16xan mende erdi ezkondu zinaziela!
Zorionak bihotz-bihotzez eta patxo erraldoi bat familixian partetik.



Peru eta Aiuri Gisasola
3 eta 5 urte bete ditzuzue aurten! Jaso koloretako irrifar pila eta muxu erraldoi bat, etxekuen eta Pil-eko lagunren partetik!



Egoitz eta Maia
Irailan 16xan eta 10ian, 34 eta 3 urte
Argateko txikixari eta bere tio maittari,
zorionak eta kili-kili batzuk!



Sugar Ostolaza Lakuesta
Abuztuan 10ian 4 urte!
Ilargiraino eta bueltan maitte zaittugu, etxekuok, bereziki Iraultzek

Jaiotakoak eta hildakoak



Yasser Amidan



Margarita Garate Lete
Angela Lete Iriondo
Juan Cruz Gabilondo Alzibar
Iñaki Etxeberria Alberdi

Lehiaketa

Zein da?



Saria:
Iñarra harategian
30 euro kontsumitzeko
bonoa.

Aurreko aleko erantzuna

Roke Akizu, alkateordea eta hirigintzako batzordeburua.

Irabazlea



Arantxa Mendikute

Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Iturria: Perez de Labeaga

Milizianoak

1 936ko gerran Errepublikaren aldeko batailoetan miliziano jardun zuten soralezar batzuek ageri dira argazkian. Ezkerreik eskumara, Iñaki Ezenarro, Benedikto Ezenarro, Sabin Garikagoitia, "Trapu" eta ezagutzerik izan ez dugun beste mutil gazte bat ageri

dira. Gaztetxoak ziren denak ere armak eskuan hartuta ibiltzeko. Batzuek itzuli ziren baina beste batzuek ez zuten gehiago beren soterrria ikusi.

Izan direlako gara...



Iragana **gogoratu** dezaten
bizi izan zutenek
Iragana **ezagutu** dezaten
bizi izan ez zutenek

Baldin badakizu,
ez ahaztu...
protagonisten izenak,
urtea, lekua eta
konturen batzuk!!



Bidali **argazki zaharrak** aldizkaria@pilpilean.com helbidera, Pil-pilean Elkartetik pasa edo Iratxo gozodendan utzi!
Astebetean itzuliko dizkizugu!

isiltasuna hausten

soraluzetarren
gerrako testigantzak

dokumentalaren
aurkezpena

irailak 22, domeka
12:00etan
herriko antzokian

Antolatzailea
Soraluze 1936

2 eta 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK GARAGEAK ETA LOKALAK



%100 FINANTZAKETA
140.000 €-tik



943 12 13 95

www.aukera-inmobiliaria.com

140.000 €ko kreditu batekin, 628,60 €ko hilero kuota finkoa lehenengo bost urteetan.